

**08/N Zirkularra  
2020-2021**

**EUSKAL HERRIKO UDAKO HAUR MAILAKO TXAPELKETA 2020-2021**

- 1. EGUNA:** 2021eko uztailaren 3 eta 4
- 2. LEKUA:** Urreta kiroldegia, Galdakao
- 3. ORDUAK:** Zehazteko
- 4.IGERILEKUA:** 25 m eta 8 kale kronometraje elektronikoz
- 5. PROBEN PROGRAMA**

| <b>1. Saioa<br/>(2021/07/03)</b> |         |           |              |
|----------------------------------|---------|-----------|--------------|
| 1.-                              | 400     | Libre     | Gizonezkoak  |
| 2.-                              | 400     | Libre     | Emakumezkoak |
| 3.-                              | 200     | Bizkar    | Gizonezkoak  |
| 4.-                              | 200     | Bizkar    | Emakumezkoak |
| 5.-                              | 100     | Tximeleta | Gizonezkoak  |
| 6.-                              | 100     | Tximeleta | Emakumezkoak |
| 7.-                              | 100     | Estiloak  | Gizonezkoak  |
| 8.-                              | 100     | Estiloak  | Emakumezkoak |
| 9.-                              | 4 x 200 | Libre     | Gizonezkoak  |

| <b>2. Saioa<br/>(2021/07/03)</b> |         |          |              |
|----------------------------------|---------|----------|--------------|
| 10.-                             | 200     | Bular    | Emakumezkoak |
| 11.-                             | 200     | Bular    | Gizonezkoak  |
| 12.-                             | 100     | Libre    | Emakumezkoak |
| 13.-                             | 100     | Libre    | Gizonezkoak  |
| 14.-                             | 200     | Estiloak | Emakumezkoak |
| 15.-                             | 200     | Estiloak | Gizonezkoak  |
| 16.-                             | 1500    | Libre    | Emakumezkoak |
| 17.-                             | 800     | Libre    | Gizonezkoak  |
| 18.-                             | 4 x 200 | Libre    | Emakumezkoak |

| <b>3. Saioa<br/>(2021/07/04)</b> |         |          |              |
|----------------------------------|---------|----------|--------------|
| 19.-                             | 200     | Libre    | Gizonezkoak  |
| 20.-                             | 200     | Libre    | Emakumezkoak |
| 21.-                             | 100     | Bizkar   | Gizonezkoak  |
| 22.-                             | 100     | Bizkar   | Emakumezkoak |
| 23.-                             | 400     | Estiloak | Gizonezkoak  |
| 24.-                             | 400     | Estiloak | Emakumezkoak |
| 25.-                             | 1500    | Libre    | Gizonezkoak  |
| 26.-                             | 4 x 100 | Libre    | Emakumezkoak |
| 27.-                             | 4 x 100 | Libre    | Gizonezkoak  |

| <b>4. Saioa<br/>(2021/07/04)</b> |         |           |              |
|----------------------------------|---------|-----------|--------------|
| 28.-                             | 50      | Libre     | Emakumezkoak |
| 29.-                             | 50      | Libre     | Gizonezkoak  |
| 30.-                             | 200     | Tximeleta | Emakumezkoak |
| 31.-                             | 200     | Tximeleta | Gizonezkoak  |
| 32.-                             | 100     | Bular     | Emakumezkoak |
| 33.-                             | 100     | Bular     | Gizonezkoak  |
| 34.-                             | 800     | Libre     | Emakumezkoak |
| 35.-                             | 4 x 100 | Estiloak  | Gizonezkoak  |
| 36.-                             | 4 x 100 | Estiloak  | Emakumezkoak |

**6. PARTE-HARTZEA**

**6.1. KATEGORIAK:**

|                |                    |                     |
|----------------|--------------------|---------------------|
|                | <b>GIZONEZKOAK</b> | <b>EMAKUMEZKOAK</b> |
| <b>HAURRAK</b> | 2005 y 2006        | 2006, 2007 y 2008   |

6.2. Denboraldi honetan indarrean dagoen federazio-lizentzia (EIF-FVN eta FNN-NIF) duten igerilariek baizik ezin izango dute parte hartu, betiere eskatutako gutxieneko markaren bat egiaztatzen badute.

6.3. Parte hartzeko markak eta minimoak 2020ko urriaren 1etik aurrera hartuko dira baliozkotzat.

6.4. Baliozkotzat joko dira lehiaketan lortutako gutxieneko errelebo-markak edo erreleboko kideen denboren batuketa; kasu horretan, inskripzioan igerilari bakoitzaren izena agertu beharko da, bai eta marka eta hura lortu zeneko data ere.

6.5. Klub bakoitzak nahi adina igerilari aurkeztu ahal izango du proba bakoitzean.

6.6. Igerilari bakoitzak banakako lau probetan parte hartu ahal izango du, erreleboez gain.

6.7. Klub bakoitzak **errelebo-talde bakarra** aurkeztu ahal izango du proba bakoitzeko. Ezarritako adin guztietako igerilariak osatu ahal izango dute.

6.8. Banakako probetan, jaiotza-urte bakoitzeko serie bat ziurtatuko da, bai mutilen kasuan, bai nesken kasuan. Instalazioaren edukierak eta saioen aurreikusitako iraupenak ahalbidetzen badute, serieen kopurua handitu ahal izango da. Serie horiek inskripzio-denbora onenekin osatuko dira, jaiotze-urtea kontuan hartu gabe.

## 7. INSKRIPZIOA

7.1. Klubek beren federaziora bidali beharko dute aurreinskripzioa (EAEkora edo Nafarroakora, dagokionaren arabera), Leverade bidez. Federazio horrek **ekainaren 29ko (astearteko) 10:00etan** jaso beharko ditu gehien jota, geroago heldutakoak ez baitira onartuko.

7.2. Klubek banakako izen-zerrendetan sartu beharko dituzte txandakako probetan soilik parte hartzen duten igerilariak.

7.3. **Klubei ez zaie abisatuko inskripzioaren bat ez badator bat araudi honetako 6. puntuan adierazitako parte hartzeko baldintzekin, eta igerilariak eta/edo erreleboak ez parte hartzea haien erantzukizuna izango da, ez beste inorena. Federazio antolatzaileek ez dute beren gain hartuko ez-betetze horrek ekar ditzakeen gastuen erantzukizunik.**

7.4. EIF-FVNk edo FNN-NIFek izen-emateen behin-behineko zerrenda argitaratuko dute beren web orrian ([www.eif-fvn.org](http://www.eif-fvn.org) edo [www.fnn-nif.com](http://www.fnn-nif.com)) **ekainaren 30ean (asteazkenean)**. Haietan aurkitutako akatsak EIF-FVNri edo FNN-NIFri jakinaraziko zaizkio **uztailaren 1eko (osteguna) 12:00ak** baino lehen. Une horretatik aurrera ez da inolako erreklamaziorik onartuko.

7.5. Lehiaketa EAEn egiten bada, EIF-FVNko klubek lehiaketa garatzeko sortutako gastuak inskripzio guztien kopuruaren artean hainbanatzearen ondoriozko zenbatekoa ordainduko dute, inskripzio-gastu gisa, Batzarraren erabakiaren arabera.

## 8. LEHIAKETAREN FORMULA

8.1. Serieak markaka osatuko dira, jaioturtea kontuan hartu gabe.

8.2. Erlojuaren kontrako sistemarekin igeri egingo da.

## 9. BAJAK ETA ERRELEBO ORRIAK

9.1. Bajak eta errelebo-orriak idatziz eta inprimaki ofizialean jakinaraziko dira. Inprimaki hori behar bezala beteta aurkeztuko da lehiaketaren idazkaritzan, saioa hasi baino **ordu erdi** lehenago arte.

9.2. Bajak **taldeko ordezkariak edo entrenatzaileak** emango ditu (lehiaketa honetarako akreditatuta egon beharko dute), eta serie-zenbakia, igerilariaren izena eta kalea zehaztuko dira

9.3. Igerilari bat inskribatuta dagoen proban aurkeztu ezik, aurreko puntuan azaldutako moduan baja eman gabe, igerilari horrek **ezin izango du beste probetan parte hartu jardunaldiaren gainerako saioetan (erreleboetakoan ere ez), eta ez da ordezkatuko.**

9.4. Parte-hartzaileen zerrenda argitaratu ondoren aurkeztutako baja bakoitzeko 2 euroko isuna kobratuko da. Igerilari bat ez bada proba batera aurkezten garaiz eta behar bezala baja eman gabe, dagokion klubak 10 euroko isuna ordaindu beharko du.

## **10. SAILKAPENAK ETA PUNTUAZIOAK**

10.1. Banakako sailkapen bat egingo da proba eta urte bakoitzeko.

10.2. Sailkapen bat egingo da errelebo-probaren eta kategoriaren arabera.

10.3. Era berean, gizonezkoen, emakumezkoen eta baterako puntukako sailkapena ere egingo da.

10.4. Proba eta urte bakoitzeko lehen 16 sailkatuek puntuatuko dute. Puntuazioa 19, 16, 14, 13, 12 izango da, puntu 1era arte. Erreleboek bikoitza puntuatzen dute.

## **11. TROFEOAK ETA SARIAK**

11.1. Proba eta urte bakoitzean lehen hiru sailkatuei domina emango zaie.

11.2. Sari bana emango zaie haurren sailkapen bateratuko lehen hiru klubei, gizonezkoen sailkapen orokorreko talde irabazleari eta emakumezkoen sailkapen orokorreko talde irabazleari.

## **12. ZEHAPENAK ETA AZKEN OHARRA**

12.1. EIF-FVN/FNN-NIFek behar diren zehapenak jarri ahal izango dituzte gutxieneko markak edo eskatutako bestelako baldintzak faltsutzen badira.

12.2. EIF-FVN/FNN-NIFek lehiaketa-zuzendari bat izendatuko dute lehiaketa honetarako, eta agintaritzaren gorenaren izango da txapelketa antolatze eta lehiaketako epaile-arbitroaren agintea oztopatzen ez duten erreklamazioak ebazteko.

12.3. Araudi honetan aurreikusten ez den guztia EIF-FVNren edo FNN-NIFen (lehiaketa egiten den tokiaren arabera) lehiaketei buruzko araudiak edo, hala badagokio, RFENren lehiaketen erregelamendu orokorrak arautuko dute.

12.4.- Federazioek eskubidea dute beren babesleak kirol-materiala saltzeko stand bat jar dezan.